Geuz
Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Transformación de Conflictos

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

# Unidad didáctica
# Irudika ezazu bakea / Imagínate la paz

## Objetivos:

- Comprender el concepto de paz positiva frente al de paz negativa.
- Identificar y reflexionar sobre los aspectos clave de la "cultura de paz" según la declaración de las Naciones Unidas.
- Reflexionar sobre nuestra propia capacidad para construir una cultura de paz en la vida cotidiana.
- Identificar acciones concretas que promueven una cultura de paz en nuestras vidas.

## Participantes:

Un número indiferente de personas a partir de 14 años.

## Tiempo:

Tres sesiones de 55 minutos con un intervalo de una semana.

## Materiales:

- DVD "Irudika ezazu bakea / Imagínate la paz". Ayuntamiento de Leioa. http://www.leioa.net/eu/vive_la_ciudad/convivencia_escolar/Eskola-elkarbizitza.html
- Anexos 1 y 2 como información complementaria para el/la docente.

# Procedimiento:

## Sesión 1.

1. El/la docente introduce la actividad explicando sus objetivos y anunciando el visionado del DVD "Imagínate la paz" y explicando su origen y su elaboración con centros escolares y alumnos y alumnas de Leioa.
2. Se realiza, con todo el grupo-clase, una lluvia de ideas sobre el significado de la paz. Se anota cada respuesta en la pizarra.
3. Del conjunto de ideas recogidas en la pizarra se identifican aquellas que son negativas (ej. que no haya guerras) y aquellas que son positivas (ej. respeto, convivencia, etc.). El/la docente pregunta al alumnado por otros conceptos positivos asociados a la paz para ampliar esta categoría.
4. El/la docente hace una explicación breve del concepto de paz positiva y del concepto de paz negativa apoyándose en el anexo 1.
5. El/la docente explica que el concepto de paz positiva se ha recogido por las Naciones Unidas en la "Declaración y programa de acción sobre una cultura de paz".
6. Se realiza una lectura en voz alta del artículo 1 de la citada declaración (anexo 2). Se pide a 9 alumnos/as voluntarios que cada uno/a lea uno de los sub apartados (del punto "a" al punto "i"). El/la docente, al concluir la lectura de cada uno de los puntos, clarifica su significado si el grupo plantea alguna duda.
7. Se explica al alumnado que se va a ver el DVD que trata sobre la paz en el que van a poder identificar algunos conceptos relacionados con la paz incluidos en la declaración de las naciones Unidas. De todos estos conceptos, nos vamos a fijar, en concreto en los siguientes siete:
    - La no violencia.
    - El arreglo pacífico de los conflictos.
    - Los derechos humanos.
    - La protección del medioambiente.
    - La cooperación.

- La igualdad de derechos y oportunidades de mujeres y hombres.
- El pluralismo y la diversidad cultural (racismo).

8. Antes de ver el DVD, se divide al grupo-clase en siete sub grupos de trabajo y se asigna a cada uno un concepto relacionado con la paz del listado anterior. Se pide a los/las alumnos/as que, mientras ven el DVD, identifiquen y anoten aquellas escenas en las que aparece el concepto que se les ha asignado.
9. Visionado, sin interrupciones, del DVD.
10. Cada grupo de alumnos/as comenta con el resto de la clase las escenas del DVD en las que han identificado aspectos relacionados con el concepto que se les ha asignado.
11. El/la docente proporciona al grupo-clase las instrucciones necesarias para la realización de un trabajo en equipo que cada subgrupo ha de realizar de cara a la siguiente sesión: cada sub grupo deberá investigar sobre el concepto que se le ha asignado y ampliarlo preparando una presentación de 5 minutos que realizará ante el resto de la clase.

# Sesión 2.

1. El/la docente introduce la sesión resumiendo los contenidos y procesos de la sesión anterior y definiendo los objetivos de esta sesión:
   - Conocer y reflexionar sobre siete aspectos clave de la cultura de paz que han investigado cada uno de los grupos.
   - Reflexionar sobre nuestra capacidad y posibles acciones de cara a consolidar una cultura de paz.
2. Cada uno de los sub grupos formados presenta, durante cinco minutos, el trabajo de investigación realizado.
3. Una vez finalizada cada una de las presentaciones, el alumnado puede hacer preguntas a sus compañeros/as sobre el tema tratado. Si los/las alumnos/as preguntados tienes dificultades en dar las respuestas adecuadas, el/la docente traslada la pregunta al grupo para ampliar la respuesta y, en última instancia, aportará reflexiones propias sobre la misma.
4. El/la docente resume, como conclusión, los conceptos clave trabajados y las conclusiones respecto a la amplitud del significado de la cultura de paz.

# Sesión 3.

1. El/la docente introduce la sesión resumiendo los contenidos y procesos de la sesión anterior y definiendo los objetivos de esta sesión:
    - Reflexionar sobre nuestra propia capacidad para construir una cultura de paz en nuestra vida cotidiana.
    - Identificar acciones concretas que promueven una cultura de paz en nuestras vidas.
2. Visionar, de nuevo, el DVD. En esta caso, solo se pasará la parte final del documental en la que los niños y las niñas hacen peticiones sobre la paz y preguntan a los mayores qué pueden hacer (desde el minuto 14:04 hasta el final).
3. Dividir al grupo-clase en siete sub grupos (los mismos que has desarrollado cada presentación). Pedir a cada sub grupo que piense y anote, durante diez minutos, acciones concretas que podamos llevar a cabo en nuestras vidas cotidianas para conseguir o acercarnos a ese objetico.
4. Cada sub grupo presenta sus conclusiones a la clase, durante un máximo de tres minutos.
5. Realizar una ronda final de comentarios voluntarios sobre lo aprendido.
6. El/la docente resume, como conclusión, los conceptos clave trabajados y las conclusiones.

Geuz
Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Transformación de Conflictos

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

## ANEXO 1: INFORMACIÓN PARA EL/LA DOCENTE

## PAZ NEGATIVA Y PAZ POSITIVA

*Cuadernos de educación para la paz. Programa de Educación para la paz.*
*Escola de Cultura de Pau. Universidad Autónoma de Barcelona.*
*Bellaterra (Cerdanyola del Vallès), junio 2005.*
*http://www.escolapau.org/castellano/programas/educacion.htm,*

Antes de ver qué entendemos por cultura de paz, hay que aclarar qué entendemos por paz. A menudo, la percepción que se tiene de ésta es que es un valor muy importante, que es una situación deseable a la que nos gustaría llegar. Pero, al intentar precisar las condiciones de esta situación deseable, aparece un concepto ambiguo, emocional, difícil de definir, un ideal que no sabemos concretar. La verdad es que se trata de un concepto complejo, amplio y multidimensional que hace falta analizar.
Según las personas y las culturas, hay diferentes concepciones de paz; por esta razón, una premisa importante es clarificar su significado. Pero antes de concretar como entendemos la paz, veamos brevemente cuales han sido las concepciones de paz dominantes en la cultura occidental a lo largo de nuestra historia.
En la antigua Grecia, *eirene* era el término con el que se hacía referencia a la paz, con una idea de paz como un estado de tranquilidad, de serenidad, de ausencia de hostilidades entre ciudades griegas, es decir, una armonía en la unidad interior y social griega.
La pax romana hace referencia al respeto a lo legal, a mantener la ley y el orden establecido. En definitiva, a velar por la ausencia de conflictos y rebeliones violentas dentro de los límites del Imperio Romano controlado por un poderoso aparato militar. Este modelo responde a una estructura social y económica imperialista y, por tanto, busca mantener el status quo, es decir defender los intereses de los que se benefician de la estructura del Imperio respecto a los que quedan en la periferia.
Tal como dice John P. Lederach, «igual que en el Imperio Romano, la paz contemporánea refleja los intereses de quienes se benefician de la estructura internacional tal como es, es decir, los del centro y no los de la periferia». Una concepción muy negativa y manipuladora de la paz, entendida como mera ausencia de guerra y de desórdenes internos, es lo que llamamos la **PAZ NEGATIVA.**

Si lo que queremos es una paz para todas las personas, libertadora y constructora, Hace falta superar la paz negativa y partir de una concepción más rica y positiva de ésta.

Entendemos por **PAZ POSITIVA** «el proceso de realización de la justicia en los diferentes niveles de la relación humana. Es un concepto dinámico que nos lleva a hacer aflorar, afrontar y resolver los conflictos de forma noviolenta y el fin de la cual es conseguir la armonía de la persona con sí misma, con la naturaleza y con las demás personas.»[8*]

Es decir, la paz positiva es…

- Mucho más que una mera ausencia de guerra.
- Un proceso en constante construcción.
- No es un estado o un tiempo de paz, sino un orden social.
- Un orden social de reducida violencia y elevada justicia.
- La igualdad en el control y la distribución del poder y los recursos.
- La ausencia de condiciones no deseadas (guerra, hambre, marginación…)… y la presencia de condiciones deseadas (trabajo, vivienda, educación…), por tanto, hay que prepararla.
- Definir paz en términos de condiciones y relaciones, es decir, crear unas condiciones y establecer un determinado tipo de relaciones.
- Un concepto amplio y multidimensional, que pide una comprensión amplia y elaborada.
- Requiere una educación para ella. También pide tener una comprensión amplia y rica del concepto de violencia.
- Resolver los conflictos de manera positiva, creativa y noviolenta.

En conclusión, «no puede existir paz positiva si hay relaciones caracterizadas por el dominio, la desigualdad y la no-reciprocidad, aunque no haya ningún conflicto abierto.»[9*] Por esta razón, es evidente que construir la paz comporta crear unes relaciones basadas en la cooperación, el apoyo mutuo, la colaboración y la creación de condiciones de confianza mutua.

8* Seminario de Educación para la Paz-APDH. Educar para la paz. Una propuesta posible. La Catarata. Madrid, 2000.
9* LEDERACH, John P. El abecé de la paz y los conflictos.: La Catarata. Madrid, 2000.

## ANEXO 2: INFORMACIÓN PARA EL/LA DOCENTE

## DECLARACIÓN Y PROGRAMA DE ACCIÓN SOBRE UNA CULTURA DE PAZ DE LAS NACIONES UNIDAS (Resolución 53/243. 6/10/1999).

### Artículo 1

"Una cultura de paz es un conjunto de valores, actitudes, tradiciones, comportamientos y estilos de vida basados en:
a) El respeto a la vida, el fin de la violencia y la promoción y la práctica de la no violencia por medio de la educación, el diálogo y la cooperación;
b) El respeto pleno de los principios de soberanía, integridad territorial e independencia política de los Estados y de no injerencia en los asuntos que son esencialmente jurisdicción interna de los Estados, de conformidad con la Carta de las Naciones Unidas y el derecho internacional;
c) El respeto pleno y la promoción de todos los derechos humanos y las libertades fundamentales;
d) El compromiso con el arreglo pacífico de los conflictos;
e) Los esfuerzos para satisfacer las necesidades de desarrollo y protección del medio ambiente de las generaciones presentes y futuras;
f) El respeto y la promoción del derecho al desarrollo;
g) El respeto y el fomento de la igualdad de derechos y oportunidades de mujeres y hombres;
h) El respeto y el fomento del derecho de todas las personas a la libertad de expresión, opinión e información;
i) La adhesión a los principios de libertad, justicia, democracia, tolerancia, solidaridad, cooperación, pluralismo, diversidad cultural, diálogo y entendimiento a todos los niveles de la sociedad y entre las naciones; y animados por un entorno nacional e internacional que favorezca a la paz".

Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Transformación de Conflictos

UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

## ANEXO 3: INFORMACIÓN PARA EL/LA DOCENTE

## LISTADO DE CONCEPTOS RELACIONADOS CON LA CULTURA DE PAZ A ANALIZAR MEDIANTE EL DVD.

| CONCEPTO | ESCENA | MINUTOS |
|---|---|---|
| La no violencia. | "que no haya guerras"<br>"no pelearse" | 11:38 |
| El arreglo pacífico de los conflictos. | "adostokia"<br>"por favor, arreglar los conflictos dialogando" | 5:04<br>14:30 |
| Los derechos humanos. | "cuando la gente tiene los mismos derechos" | 13:55 |
| Protección del medioambiente. | "cuidando los animales"<br>"y se contamina la tierra, nuestra madre tierra" | 10:11<br>8:38 |
| La cooperación. | "compartir las galletas cuando las demás no tienen"<br>"dejarles las pinturas y los lápices" | 2:18 |
| La igualdad de derechos y oportunidades de mujeres y hombres. | "las chicas también tiene derecho a ser lo que quieran"<br>"hacer violencia de género" | 14:03 |
| Pluralismo y diversidad cultural (racismo). | "me llaman negro" | 6:33 |

Geuz
Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Transformación de Conflictos

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

# Unitate didaktikoa
# Irudika ezazu bakea / Imagínate la paz

## Helburuak:

- Bake positiboaren kontzeptua ulertu bake negatiboarenaren aurrean. Nazio Batuen adierazpenaren araberako "bake-kultura"ren alderdi giltzarriak identifikatu eta horien gainean hausnartu.
- Geuk egunerokotasunean bake-kultura eraikitzeko dugun gaitasunaren inguruan hausnartu.
- Gure bizitzan bake-kultura sustatzen duten ekintza zehatzak identifikatu.

## Parte-hartzaileak:

14 urtetik gorako pertsonak, kopurua mugatu gabe.

## Denbora:

55 minutuko hiru saio astebeteko tarteaz.

## Materialak:

- "Irudika ezazu bakea / Imagínate la paz" DVDa. Leioako Udala. http://www.leioa.net/eu/vive_la_ciudad/convivencia_escolar/Eskola-elkarbizitza.html
- 1 eta 2 eranskinak, irakaslearentzako informazio osagarri gisa.

## Prozedura:

# 1. Saioa.

1. Irakasleak jardueraren sarrera egingo du helburuak azalduz eta "Irudika ezazu bakea" DVDa iragarriz. Era berean, bere jatorria eta Leioako ikastetxe eta berauetako ikasleekin burututako lanketa azalduko du.
2. Talde/gela osoarekin ideia-jasa egingo da bakearen esanahiari buruz. Erantzun bakoitza arbelean idatziko da.
3. Arbelean jasotako ideien artean negatiboak (adib. gerrarik ez izatea) eta positiboak (adib. errespetua, elkarbizitza, etab.) identifikatuko dira. Irakasleak ikasleei bakearekin zerikusia duten beste kontzeptu batzuen inguruan galdetuko die kategoria hau zabaltzeko.
4. Irakasleak azalpen labur bat egingo du bake positiboaren eta bake negatiboaren kontzeptuez, 1 eranskinean oinarrituta.
5. Irakasleak azalduko du bake positiboaren kontzeptua Nazio Batuek jasoa dutela "Bake-kultura bati buruzko adierazpenean eta ekintza-programan".
6. Ozenki irakurriko da aipatutako adierazpenaren 1 artikulua (2 eranskina). 9 ikasleri eskatuko zaie bakoitzak azpi-atal bat irakur dezala ("a" puntutik "i" puntura). Irakasleak, puntu bakoitzaren irakurketa amaitzean, bere esanahia argituko du, taldeak zalantzaren bat agertuz gero.
7. Ikasleei adieraziko zaie bakeari buruzko DVDa ikusiko dutela eta, bertan, bakearekin zerikusia duten zenbait kontzeptu identifikatu ahal izango dituztela, Nazio Batuen adierazpenean sartutakoak, hain zuzen. Kontzeptu hauen guztien artean, zehazki, zazpi hauetan jarriko dugu arreta:
   - Ez-indarkeria.
   - Gatazken ebazpen baketsua.
   - Giza eskubideak.
   - Ingurumenaren babesa.
   - Lankidetza.
   - Emakume eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasuna.
   - Pluraltasuna eta kultura aniztasuna (arrazismoa).

8. DVDa ikusi aurretik, taldea/gela zazpi azpi-taldetan zatituko da eta talde bakoitzari bakearekin erlazionatutako kontzeptu bat emango zaio aurreko zerrendatik. Ikasleei eskatuko zaie, DVDa ikusten ari diren bitartean, identifikatzeko eta jasotzeko egokitu zaien kontzeptua agertzen den eszenak.
9. DVDa ikusi, etenik gabe.
10. Ikasle-talde bakoitzak gainerako ikaskideekin komentatuko ditu DVDan identifikatu dituzten eszenak, egokitu zaien kontzeptuarekin zerikusia dutenak, hain zuzen.
11. Irakasleak beharrezko jarraibideak emango dizkio taldeari, azpi-talde bakoitzak hurrengo saiorako egin behar duen talde-lan baterako: azpi-talde bakoitzak egokitu zaion kontzeptuaren gainean ikertu beharko du eta informazioa zabaldu, gainerako ikaskideen aurrean egingo duten 5 minutuko aurkezpena prestatzeko.

Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Transformación de Conflictos

UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

# 2.Saioa.

1. Irakasleak saioari hasiera emango dio, aurreko saioko eduki eta prozesuak laburbilduz eta saio honen helburuak definituz:
   - Talde bakoitzak ikertutako bake-kulturaren zazpi alderdi giltzarri ezagutu eta hauen inguruan hausnartu.
   - Gure gaitasunaz eta balizko ekintzez hausnartu, bake-kultura bat sendotzeari begira.
2. Osatutako azpi-talde bakoitzak, bost minutuan, burututako ikerketa-lana aurkeztuko du.
3. Aurkezpen bakoitza amaitutakoan, ikasleek galderak egin diezazkiekete ikaskideei landutako gaiaz. Galderari erantzun beharreko ikasleek zailtasunak izanez gero erantzun egokiak emateko, irakasleak taldeari pasako dio galdera erantzuna zabal dezaten eta, azken aukera gisa, bere hausnarketak gehituko ditu.
4. Irakasleak, ondorio gisa, laburbildu egingo ditu landutako kontzeptu giltzarriak eta bake-kulturaren esanahi zabalaren inguruko ondorioak.

# 3. Saioa.

1. Irakasleak saioari hasiera emango dio, aurreko saioko edukiak eta prozesuak laburbilduz eta saio honen helburuak definituz:
   - Eguneroko bizitzan bake-kultura eraikitzeko geure gaitasunaz hausnartu.
   - Gure bizitzan bake-kultura sustatuko duten ekintza zehatzak identifikatu.
2. Berriro, DVDa ikusi. Oraingoan, dokumentalaren azken zatia jarriko da, neska-mutilek bakeari buruzko eskaerak egiten dituztena eta helduei zer egin dezaketen galdetzen dietena (14:04 minututik amaiera arte).
3. Talde/gela zazpi azpi-taldetan banatu (aurkezpen bakoitza landu duten berberak). Azpi-talde bakoitzari eskatu pentsatu eta idatz ditzala, hamar minutuan, gure eguneroko bizitzan burutu ditzakegun ekintza zehatzak helburu hori lortzeko edo bertara hurbiltzeko.
4. Azpi-talde bakoitzak bere ondorioak aurkeztuko dizkio taldeari, gehienez hiru minutuan.
5. Azken itzuli bat egin, nahi dutenek iruzkinak egin ditzaten ikasitakoaz.
6. Irakasleak, ondorio gisa, laburbildu egingo ditu landutako kontzeptu giltzarriak eta ondorioak.

Geuz
Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Transformación de Conflictos

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

## 1 ERANSKINA: IRAKASLEARENTZAKO INFORMAZIOA

## BAKE NEGATIBOA ETA BAKE POSITIBOA

*Bakerako heziketa koadernoak. Bakerako Heziketa Programa.*
*Pauko Kultura Eskola. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.*
*Bellaterra (Cerdanyola del Vallès), 2005eko ekaina.*
*http://www.escolapau.org/castellano/programas/educacion.htm,*

Bake-kulturaz zer ulertzen dugun ikusi aurretik, bakeaz zer ulertzen dugun argitu behar da. Sarritan, bakeaz dugun pertzepzioa zera da, oso balio garrantzitsua dela, lortu nahi genukeen egoera desiragarria dela. Baina egoera desiragarri honen baldintzak zehazten ahalegintzean, kontzeptu anbiguoa agertzen da, emozionala, definitzen zaila, zehazten ez dakigun ideal bat. Egia esan, kontzeptu konplexua, zabala eta dimentsio anitzekoa da eta aztertu beharrekoa.
Pertsonen eta kulturen arabera, bakea ulertzeko modu desberdinak daude; horregatik, premisa garrantzitsu bat bere esanahia argitzea da. Baina bakea nola ulertzen dugun zehaztu aurretik, ikus dezagun, labur-labur, zein izan diren bakea ulertzeko modu nagusiak mendebaldeko kulturan, gure historian zehar.
Antzinako Grezian, e*irene* hitza erabiltzen zen bakea aipatzeko, bakea ulertuta lasaitasun, sosegu egoeratzat, hiri greziarren artean areriotasunik ezeko egoeratzat, hau da, armonia Greziako barne eta gizarte unitateetan.
Pax erromatarrak legearen errespetuari egiten dio erreferentzia, legea eta ezarritako ordena betetzeari. Azken batean, gatazkarik eta errebolta bortitzik ezaren alde egitea aparatu militar boteretsu batek kontrolatutako Erromatar Inperioaren mugen barnean. Eredu honek egitura sozial eta ekonomiko inperialistari erantzuten dio eta, beraz, status quoari eustea du helburu, hau da, Inperioaren egituratik etekina ateratzen dutenen interesak babestea kanpoan geratzen direnekiko.
John P. Lederachek dioen bezala, «Erromatar Inperioan bezala, gaur egungo bakeak nazioarteko egituratik den bezala etekina ateratzen dutenen interesak islatzen ditu, hau da, zentrokoenak eta ez kanpokoenak». Bakearen ikuskera oso negatiboa eta manipulatzailea da, gerrarik eta barne desordenarik eztzat ulertua, **BAKE NEGATIBOA** deritzoguna.
Pertsona guztientzako bakea nahi badugu, bake askatzailea eta eraikitzailea, ezinbestekoa da bake negatiboa gainditzea eta bakearen ikuskera aberatsago eta positiboagotik abiatzea.

**BAKE POSITIBOAZ** ulertzen dugu «justiziaren gauzatze-prozesua giza harremanen maila desberdinetan. Kontzeptu dinamikoa da eta gatazkak indarkeriarik gabe azaleratzera, lantzera eta ebaztera eramaten gaitu, eta bere helburua da pertsonaren armonia lortzea bere buruarekin, naturarekin eta gainerako pertsonekin.»**8***
Hau da, bake positiboa zera da…

- Gerrarik eza baino askoz gehiago.
- Etengabe eraikitzen ari den prozesua.
- Ez da bake egoera edo garai bat, baizik eta gizarte-ordena.
- Indarkeria gutxiko eta justizia handiko gizarte-ordena.
- Berdintasuna boterearen eta baliabideen kontrol eta banaketan.
- Nahi ez den baldintzarik eza (gerra, gosea, bazterkeria…) eta nahi diren baldintzen presentzia (lana, etxebizitza, heziketa…), beraz, prestatu egin behar da.
- Bakea baldintza eta harremanen ikuspegitik definitzea, hau da, baldintza batzuk sortzea eta harreman-mota jakin bat ezartzea.
- Kontzeptu zabal eta dimentsio anitzekoa, ulerkuntza zabala eta landua eskatzen duena.
- Heziketa eskatzen du. Indarkeria kontzeptuaren ulerkuntza zabala eta aberatsa izatea ere eskatzen du.
- Gatazkak modu positiboan, sortzailean eta ez-bortitzean ebaztea.

Laburbilduz, «ezin da izan bake positiborik menderakuntza, desberdintasuna eta ez-elkarrekikotasuna ezaugarri dituzten harremanak badaude, nahiz eta ez egon gatazka irekirik.»**9*** Arrazoi honengatik, argi dago bakea eraikitzeak zera eskatzen duela: kooperazioan, elkarri laguntzean, lankidetzan oinarritutako harremanak sortzea eta elkarrekiko konfiantzarako baldintzak sortzea.

8* Bake Heziketako Mintegia-APDH. Educar para la paz. Una propuesta posible. La Catarata. Madril, 2000.
9* LEDERACH, John P. El abecé de la paz y los conflictos.: La Catarata. Madril, 2000.

Geuz
Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Transformación de Conflictos

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

## 2 ERANSKINA: IRAKASLEARENTZAKO INFORMAZIOA

## NAZIO BATUEN ADIERAZPENA ETA EKINTZA-PROGRAMA BAKE-KULTURAZ (53/243 Ebazpena. 1999/10/6).

### 1 Artikulua

"Bake-kultura balio, jarrera, tradizio, jokabide eta bizitza-estilo multzoa da eta hauek honetan daude oinarrituta:

a) Bizitzarekiko errespetua, indarkeriaren amaiera eta ez-indarkeriaren sustapena eta praktika heziketa, elkarrizketa eta kooperazioaren bidez;

b) Estatuen subiranotasun, lurralde-osotasun eta independentzia politikoa printzipioen erabateko errespetua eta ez esku-hartzea Estatuen barne eskumenari dagozkion kontuetan, Nazio Batuen Gutunaren eta nazioarteko eskubidearen arabera;

c) Giza eskubide guztien eta askatasun nagusien erabateko errespetua eta sustapena;

d) Gatazken konponketa baketsuarekiko konpromisoa;

e) Oraingo eta etorkizuneko belaunaldien ingurumenaren garapen eta babes beharrak asetzeko ahaleginak;

f) Garapenerako eskubidearen errespetua eta sustapena;

g) Gizon eta emakumeen eskubide- eta aukera-berdintasunaren errespetua eta sustapena;

h) Pertsona guztien adierazpen, iritzi eta informaziorako askatasunaren errespetua eta sustapena;

i) Printzipio hauekiko lotura: askatasuna, justizia, demokrazia, tolerantzia, elkartasuna, kooperazioa, pluraltasuna, kultura aniztasuna, elkarrizketa eta ulerkuntza gizarteko maila guztietan eta nazioen artean; eta bakeari lagunduko dion inguru nazional eta nazioartekoak animatuta".

## 3 ERANSKINA: IRAKASLEARENTZAKO INFORMAZIOA

## BAKE-KULTURAREKIN ZERIKUSIA DUTEN KONTZEPTUEN ZERRENDA DVD-AREN BIDEZ AZTERTZEKO.

| KONTZEPTUA | ESZENA | MINUTUAK |
|---|---|---|
| Ez- indarkeria. | "gerrarik ez egotea"<br>"borrokan ez aritzea" | 11:38 |
| Gatazken ebazpen baketsua. | "adostokia"<br>"mesedez, konpondu gatazkak hitz eginez" | 5:04<br>14:30 |
| Giza eskubideak. | "jendeak eskubide berdinak dituenean" | 13:55 |
| Ingurumenaren babesa. | "animaliak zaintzen"<br>"eta lurra kutsatu egiten da, gure ama lurra" | 10:11<br>8:38 |
| Kooperazioa. | "gailetak partekatu besteek ez dauzkatenean"<br>"margoak eta arkatzak utzi" | 2:18 |
| Emakume eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasuna. | "neskek ere eskubidea dute nahi dutena izateko"<br>"genero-indarkeria egitea" | 14:03 |
| Pluraltasuna eta kultura aniztasuna (arrazismoa). | "beltza deitzen didate" | 6:33 |